

ARTISAU- GARAGARDOAREN EGOERA EUSKADIN

2021



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



AURKEZPENA

2021ekoa aurreko urteko pandemiaren krisiaren aurkako erresistentziaren eta lan gogorraren jarraipenaren urtea izan da. Indarberritze-zantzuak hauteman dira, baina garesti, Euskadiko garagardogileen ahaleginari dagokionez.

EGEk (Euskal Garagardo Elkartea – Basque Beer), laugarren urtez jarraian, “2021ean Euskadiko artisau-garagardoaren egoera” jorratzen duen txosten teknikoa sustatu du. Txosten hori Barcelona Beer Festival-eko taldeak egin du eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzaren babesas jaso du. Zalantzarik gabe, garagardogileen sektorearen bilakaera mahai gainean jartzen duen azterketa da, xehetasun osoz egindako inkesta baten bidez bildutako datuetatik abiatuta, eta garagardogileei zuzendua. Azken lau urteetan eskuratu eta aztertutako datuek besteak beste ekoizpenaren bilakaera, negozioaren bolumena eta enpleguaren sorrera ikuspegi hobearekin ebaluatzea bermatzen digute. Konparazio horretan eragin handia izan du Covid-19aren osasun-krisiak sortutako beheraldiak. 2020 geroztik ordurarte etengabe gorabidean zioan garagardoaren sektoreari eragin dio krisialdi horrek.

Azken bi urteetan krisi ekonomiko eta sozial larria bizi izan dugun arren, Euskadiko garagardogileen sektorearen suspertze-zantzuak nabarmenak eta itxaropentsuak dira. 2021eko txosten honetan ikus dezakegunez, garai horretan garagardogileek egindako lan gogorrak eta orduko erresistentziak fruituak eman ditu, eta pandemiaren aurreko garaiko adierazle batzuk berrezarri edo gainditu egin ditu. Sentitzen dugu, hori bai, aurten proiektu zehatz baten itxiera, lurraldeko sektorearen aniztasuna murrizten duena, baina, bestalde, sektorearen bilakaera orokorra indartu egin da alderdi askotan.

EAEko garagardogileen sektoreak 2021ean izandako susperraldiaren datu adierazgarri gisa,

ekoizpen globalaren %27ko hazkundea nabarmendu dezakegu. Bistan denez, 2020ko zorigaiztoko egoerarekin alderatuz gero, goranzko joera nabarmena da, baina argi eta garbi ikusten da sektorearen egoera krisiaren aurretik zegoen hartara hurbiltzen ari dela, 2019koak gainditzen dituzten datuekin, hazkunde handia adierazten dutenak. Zalantzarik gabe, indarberritzen ari gara. Oro har, adierazle onak mantentzen dira esportazioan eta online-salmentan, eta merkatu-kuota ere handitu egin da.

2021EAN, ARTISAU-GARAGARDOAREN EKOIZPENA %19 HAZI DA COVID AURREKO GARAIAREKIN ALDERATUTA, ETA %27 2020KOAREKIN PAREKATUTA

Euskadiko garagardogileen sektorearen susperraldi-egoera nabarmentzen du, beraz, 2021eko ebaluazio eta azterketak. Ez dakit normaltasunaz hitz egin dezakegun, esanahi argia duen hitz huts bat baino ez baita gaur egun; bai, ordea, egitateez eta emaitzez, tinko iraun duen eta berrasmatuz joan den sektoreak egindako ahaleginaren fruitua.

Atsegin handiz aurkezten dizuegu txosten tekniko hau, bertan azaldutako datu eta ondorio guztiak xehetasunez azter ditzazuen, eta gure esker ona adierazi nahi diegu ekarpenak egin dituzten garagardogile eta pertsona guztiei. Lan hau gure sektorearen, garagardogilearen indarberritzea sustatu eta adoretzera zuzenduta dago, hain gustuko dugunaz gozatzen jarraitzeko!

Jabier Ortega

Euskal Garagardo
Elkarteko lehendakaria



PARTE HARTU DUTEN GARAGARDOGILEAK



1  **Baga Biga**
Donostia - Gipuzkoa

2  **Baías**
Urkabustaiz - Araba

3  **Basabe**
Legorreta - Gipuzkoa

4  **Basqueland**
Hernani - Gipuzkoa

5  **Basquery**
Bilbo - Bizkaia

6  **Bidassoa**
Irun - Gipuzkoa

7  **Boga**
Mungia - Bizkaia

8  **Byra**
Iruña Oka - Araba

9  **Olañeta**
Errenteria - Gipuzkoa

10  **Drunken Bross**
Zamudio - Bizkaia

11  **Etxeandia**
Urduliz - Bizkaia

12  **Gar&Gar**
Donostia - Gipuzkoa

13  **Gross**
Donostia - Gipuzkoa

14  **La Salve**
Bilbo - Bizkaia

15  **Laugar**
Gordexola - Bizkaia

16  **Maiken**
Balmaseda - Bizkaia

17  **Mala Gissona**
Oiartzun - Gipuzkoa

18  **Pagoa**
Oiartzun - Gipuzkoa

19  **Tito Blas**
Gorliz - Bizkaia

20  **Txorierri**
Sondika - Bizkaia

FABRIKAK EUSKADIN

Txosten Tekniko honetan, egindako azken azterketetan bezala, RGSEAAren erregistroa hartzen da erreferentziatzat, Euskadiko garagardogileak kontabilizatzeko, gehienbat azken kontsumitzailearentzat garagardoa saltzen eta ekoizten duten Brewpubak ere kontuan hartuz.

Parte hartzen duten garagardogileen mapan ikus daiteke Euskadiko fabriken banaketa, 2021ean: Gipuzkoak eta Bizkaiak 9 proiektu dituzte, eta Araban 2 aurkitzen ditugu.

Pandemiak ere eragin handia izan du 2021ean. Krisialdi ekonomiko, sozial eta laboralaren bigarren urtea izan da, non murrizketa batzuk mantendu baitira, sektoreari nabarmen eragin diotenak. 2020an, jada, proiektu aktiboen kopurua murriztu egin zen, eta, askotan garagardogilearen jarduerari eutsi zaion arren, 2021aren amaieran aurreko urtean baino proiektu bat gutxiago geneukan.

Aztertu beharreko lehen datua azken urteotako garagardogile-kopuruaren hazkundearen bilakaera da. Covid-19 krisiak eragindako atzerakada ezin hobeto ikus daiteke hurrengo grafikoan, eta sektoreak azken urteetan izan duen etengabeko hazkundera gelditu egin da. Nolanahi ere, 2020an aktibo zeuden proiektu gehienek krisiari aurre egin diote, eta 2021ean proiektu kopurua bakar baten murriztu da. Bizi izan dugun testuingurua eta Euskadiko garagardo-proiektuen jarduerari eusteko zailtasunak kontuan hartuta, gutxieneko murrizketa horrek nolabaiteko egonkortasuna eta baikortasuna ematen digu indarberritze azkar baterako.

© 2022 Survio plataforma espezializatuaren bidez egindako inkesta.


FABRIKEN SORRERA GRAFIKOA



**FABRIKAK
GUZTIRA**




**SORRERA
BERRIA**



EKOIZPENA

Aztertutako lehen datu globalarekin hasten da nabaritzen Euskadiko sektorearen berreskuratzea. Azterketa egiteko orduan, garagardo-litro guztien ekoizpenari buruzko datuen alderatzea itxaropentsua da. 2020an baino %27 gehiago handitu da, eta 1.778.675 litro produzitu dira. Datu horiek 2019ko, pandemia aurreko garaiko ekoizpen-mailaren gainetik jartzen gaituzte. 2021ean krisiaren eta murrizketa handien bigarren urtea bizi izan arren, milioi eta erdi litroko kopurua soberan gainditu d. Datu horrek adierazten du sektorea hazten ari den muskulu osasuntsua dela. Infografia honetan, ekoizpen globalak azken 8 urteetan izan duen bilakaera ikus dezakegu:

EKOIZTUTAKO LITROAK GUZTIRA



Azken Txosten Teknikoetan bezala, tipologia-ren araberako fabrika-moten arteko konparazioa egingo dugu, urteko ekoizpenak litrotan adieraziz: Garagardogile Txikiak (100.000 litro baino gehiago urtean), Mikro garagardogileak (24.000 eta 100.000 litro artean urtean) eta Nano garagardogileak (24.000 litro baino gutxiago urtean).

Kontuan hartu behar dira proiektuen arteko ezberdintasunak, sailkapenaren, negozio-ideiaren eta filosofiaren arabera. Datu globalek espektro osoa hartzen dute, baina beste adierazle batzuk ere kontuan hartu behar ditugu, hala nola langile-kopurua, tokiko salmenta, esportazioak edo negozio-bolumena, multzoa baloratu ahal izateko.

Ikus dezakegu 2021ean Euskadiko artisau-garagardoaren ekoizpen osoaren hiru laurden euskal garagardogileen %25aren kontura dela, garagardo txikien kontura. Orain arte garagardo txikiak hazkunde nabarmena izan dutela adierazten digu datu horrek, eta, egia esan, Euskadiko ekoizpen globalaren gehiengoa (% 75) fabrika-multzo honek gauzatu du. Bestalde, Mikro eta Nano garagardogileetako datuek adierazten digute fabrikek, oro har, produkzioa handitu egin dutela; hortaz, Nanoek guztizkoaren %30 ordezkatzten dute orain (kopurua murriztu egin da), eta Mikroek %45. Azken bi kategoria horiek produkzio globalaren %25 dira. Zenbakiak mantentzeko lanean gogor dihardutela interpretatzen dugu. Infografia honetan, ehunekoak aurkezten ditugu:

NANO GARAGARDOGILEA 24.000 LITRO BAINO GUTXIAGO

GARAGARDOGILEEN
%30
EKOIZPEN OSOAREN
%4,3



MIKRO GARAGARDOGILEA 24.000 ETA 100.000 LITRO ARTEAN

GARAGARDOGILEEN
%45
EKOIZPEN OSOAREN
%20,7



GARAGARDOGILE TXIKIA 100.000 LITRO BAINO GEHIAGO

GARAGARDOGILEEN
%25
EKOIZPEN OSOAREN
%75




EKOIZPENA

Sektorearen hazkundera ulertzeko adierazle esanguratsu eta erraz bat batez besteko produkzioaren kalkulua da, hau da, sortutako guztizko litroen kopurua zati lantegi-kopurua.

2021erako kopuru hori 88.934 litro urteko eta fabrikako da. Datu horrek erakusten digunez, azken bi urteetan 3 garagardogile-proiektu itxi dituzten arren eta beste fabrikarik sortu ez badute ere, 2021ean lanean ari ziren garagardogileek gogor egin dute lan oso emankorrak izateko, eta 2019ko batezbestekoa gainditzea lortu dute. Kopuru hori bere garaian gero eta handiagoa izateagatik nabarmentzen zen. Zailtasunak zailtasun, sektorearen suspertzea berresten duen beste adierazle bat.

EKOIZTUTAKO LITROAK GUZTIRA



MERKATU-KUOTA

Herritarrek gehien eskatzen duten produktuetako bat garagardoa da, arrazoi sozial eta kulturalengatik. Euskadiko garagardoaren kontsumo globala 147 milioi litroa* gerturatu da 2021ean. Horietatik 1,78 milioi litro artisauenak dira. Adierazle horiek erakusten digutenez, artisau-garagardoaren ekoizpena nabarmen hazi da, %1,2ko ekoizpen-kuotarekin. Zifra horrek 2020 eta 2019arekiko hazkundera adierazten dute, orduan %1,1lekoa baitzen.



EKOIZPEN-KUOTA

%1,2



MERKATU-KUOTA

%2,7

Kopurua nahiko egonkor mantendu zen 2020an, produkzioa, oro har, jaitsi egin baitzen, bai zenbaketa orokorrean (%9), bai artisauarenean (%6). 2021eko datuek garagardogileen sektorearen susperraldia agerian uzten dute, hazkunde orokorra %16koa izan baita, baina artisautza-sektorearen hazkundera %27koa izan da. Zalantzarik gabe, datu bizigarriak dira aurreapenezko etorkizun baterako.

Bestalde, artisau-garagardoak %2,7ko merkatu-kuota du, oso igoera esanguratsua, 2019ko %2,4koarekin eta 2020ko %2,5ekoarekin alderatuta.

Oharra: Merkatu-kuotaren kontzeptua salmenta-portzentajetzat hartzen da, sektoreko salmenta osoarekiko. Beraz, unitateko prezioak garrantzia du kalkuluan. Artisau-litro berberak garagardo industrialak baino negozio-bolumen handiagoa sortzen dute, unitate-kostu txikia-goarekin.

**Iturria: Espainiako garagardoaren sektoreari buruzko 2021eko txosten sozioekonomikoa (Espainiako Garagardogileak)*

GARAGARDOA

2021ean Euskadin produzitutako garagardoaren aniztasuna handitzeak (366 garagardo desberdin) lurraldeko artisau-garagardoaren ekoizpenaren alderdi sortzailea eta dinamikoa berreskuratu dela adierazten du. Garagardo-tipologiaren kopurua nabarmen hazi da 2020ko 340 garagardoekin alderatuta, baina interesgarriena da 2019an 352 garagardo desberdin baino gehiago zenbatu direla. Garagardo-mota hori kontabilizatzeko, kontuan hartu behar da garagardo batzuek ekoizpen iraunkorra dutela (gama finkoa), eta beste batzuk, berriz, urteko une jakinetarako stock murriztuetan ekoizten direla (edizio bereziak).

EUSKADIK 2021EAN EKOIZTEN DU

366

GARAGARDO DESBERDIN
GAMA FINKOAREN ETA
EDIZIO BEREZIEN ARTEAN



Lurraldearekiko lotura indartzen ari da urtez urte. Garagardogileen %60k tokiko lehengaiak erabiltzen dituzte, eta kopuru hori %10 hazi da 2020arekin alderatuta. 12 euskal garagardoegi-

leek batz bestek lekuko malten %37 eta tokiko lupuluen %19 erabiltzen dute garagardoaren ekoizpenean.

TOKIKO LEHENGAIEN ERABILERA

GARGARDOGILEEN %60

%37
TOKIKO MALTA




%19
TOKIKO LUPULUA



Upelaren eta banako ontziaren erabileraren arteko konparazioan, 2021. urtean zehar, garagardogileek upelean %46 ontziratzen dutela antzeztan dugu. Kopuru hori handitu egin da aurten, pandemiaren aurreko ohiturak berreskuratu baititugu; izan ere, tabernak ireki dira berriro eta giza-topaketak itzuli dira.

Esanguratsua da upelaren erabilera nabarmen berreskuratu arren, banako ontziratzerako potoa erabiltzen duten garagardogile-kopurua mantendu dela. Zehazki, garagardogileen %58k erabiltzen dute, 2020an bezala. Dena den, potoan ontziratzeke erabilera orokorra murriztu egin da, upelaren erabileraren mesederako.

UPELA



EKOIZPEN
OSOAREN
%46

BERRIRO
ERABILGARRI
%47

ERABILERA
BAKARREKOA
%53

POTOA



%54
BANAKAKO
ONTZIRATZEAN

FABRIKEN
%58
ERABILTZEN
DUTE

%22
POTOAN
%78
BOTILAN

BARRIKA



EKOIZPEN OSOAREN
%7,3
FABRIKATIK

FABRIKEN
%25
ERABILTZEN
DUTE

SALMENTAK ETA BANAKETA

Infografia honetan, laburbilduta azaltzen da Euskadiko garagardogileen sektorearen banaketa- eta salmenta-egoera. Azpimarratzekoa da Covid-19 krisiaren aurkako erresistentziak utzi ahal izan zuen egoera positiboa, besteak beste esportazioaren adierazleekin, baliabide erabakigarria izan baitzen 2020an, eta %8 handitu baita 2021ean.

Azpimarratu beharreko beste datu bat tokiko eta hurbileko kontsumoaren igoera da, izan ere, azterketan parte hartzen duten garagardogileen kasuan, salmenten %63 suposatzen du, batez beste. Hirugarrenentzako elaborazioa ere nabarmen handitu da: 2020an zeuden fabriken %50etik %65era igaro gara 2021ean.


Esportazioak gora egin du balio absolutuan 2021ean, baina gutxiago dira esportatzen duten garagardogileak, Euskadiko fabriken %50 baitira. Esportatutako euskal garagardoaren helmuga nagusiak Frantzia, Italia, Finlandia, Britainia Handia, Belgika, Herbehereak eta Portugal dira.

Lokal espezializatueterako salmentak egonkor dirauela ikusi dezakegu (%1eko igoera) eta aldi berean saltoki handietarako salmentak nabarmen jaitsi direla (%9 gutxiago). Baliteke hori esportazioa handitzeak eragin izana




Hurrengo grafikoan, azken helmuga horietan saltzen duten garagardogileek azalera handietarako eta lokal espezializatueterako zer salmenta-portzentaje zuzentzen duten islatzen da.

SALMENTA AZALERA HANDIETARAKO Garagardogileen %58



SALMENTA ESPEZIALIZATUTAKO LOKALETARAKO Garagardogileen %92



ENPLEGUA

2021. urterako Giza Baliabideen azterketak ondorioztatzen du langile-kopurua 2019ko zifretara itzuli dela jardunean dauden 111 lanposturekin. Aipatzekoa da fabriken %23k plantillaren murritzeta egin zuela, baina kopuru hau ez da batere esanguratsua. Izan ere, garagardogileen %70ak ez du ezta enplegu-erregulazioko espedienterik eskatu 2021ean, eta aldi berean lanpostuak berreskuratu dira. Datu itxaropentsuak dira, 2020ko urte zaila igaro ondoren.

Garagardogileen sektoreko langileen arteko zereginen banaketa 2020koaren oso antzekoa da. Ondoko grafikoan langileen dedikazioa ehunekoetan ageri da:

LANGILEEN DEDIKAZIOA



Nabarmentzekoa da Euskadiko artisau-garagardoaren sektoreko lanpostuetan emakumeen kuotak izan duen hazkunde ikusgarria. %56ko igoera izan du 2020arekin alderatuta.



EKOIZPENA, MAISU GARAGARDOGILEA

- %90 GIZONEZKOAK DIRA
- BATAZ BESTEKO GUTXI GORABEHERAKO ADINA 45 URTE
- %60 FORMAZIO ZEHATZAREKIN ETA GEHIENAK UNIBERTSITATE- EDO GRADUONDO-IKASKETEKIN
- %70AK BERE DENBORAREN ERDIA BAINO GUTXIAGO ESKAINTZEN DU GARAGARDOA FABRIKATZERA
- BATAZ BESTEKO SOLDATA: 25K€ ETA 30K€ ARTEAN



KOMERTZIAL BURUA

- %86 GIZONEZKOAK DIRA
- BATAZ BESTEKO GUTXI GORABEHERAKO ADINA 40 URTE
- %25 FORMAZIO ZEHATZAREKIN ETA GEHIENGOA UNIBERTSITATE EDO GOI-MAILAKO IKASKETEKIN
- %43 DEDIKAZIO OSOAN
- BATAZ BESTEKO SOLDATA: 25K€ ETA 30K€ ARTEAN



ZUZENDARI NAGUSIA

- INKESTATUTAKO GARAGARDOGILEEN %50AK PROFIL HAU DAUKATE
- %17 EMAKUMEZKOAK DIRA
- BATAZ BESTEKO GUTXI GORABEHERAKO ADINA 45 URTE
- %50 FORMAZIO ZEHATZAREKIN ETA GEHIENAK UNIBERTSITATE- EDO GRADUONDO-IKASKETEKIN
- %67K DENBORAREN ERDIA ZUZENDARITZA-LANEI ESKAINTZEN DIE
- BATAZ BESTEKO SOLDATA: 25K€ ETA 30K€ ARTEAN

KOMUNIKAZIOA ETA TURISMOA

Gaur egun, sare sozialak oinarrizko tresna dira komunikazio mailan, edozein negoziorentzat. Covid-19 krisiaren ondorioz, haiek erabiltzeko dinamika eta estrategia birformulatu dira, eta komunikazioaren mudi birtual indartsuago baterantz etengabe garatuz.

Taula honetan garagardogileek sare sozialen bidez komunikatzeko gehien erabiltzen dituzten kanalen bilakaera ikus daiteke:

	2019	2020	2021
	%95	%91	%100
	%95	%92	%75
	%52	%50	%58
	%47	%58	%50

Marka birtualaren irudia zaintzea eta eguneratzea funtsezkoa da azken bezeroarengana iristeko. Horretarako, garagardogileen web-profila txukun mantendu da marka aurkezteko eta online saltzeko. 2021ean nabarmen jaitsi da online salmenta agerikoak diren arrazoiengatik, murrizketa sozialak ez baitira hain zorrotzak izan. Infografia honetan azken bi urteetako datuak konparatzen dira:

	2020	2021
Web propioa	%91	%92
Markaren aurkezpena	%100	%100
Jardueren azalpena	%55	%58
Online-salmenta daukate	%90	%83

2021ean turismoa berreskuratzeak garagardoaren kultura- eta gizarte-jarduerara itzultzea ekarri du, maila guztietan. Murrizketen ezegonkortasunak nabarmen zaildu du pandemiaren aurreko mailetara itzultzea, baina jarduera handitzeak eta kontsumitzaileen erantzun onak zifrak hobetu dituzte.

2021ean, azterketan parte hartu zuten garagardogileen %92k jarduera turistikoak egin zituzten eta gutxi gorabehera 7.800 bisitari izan zituzten, aurreko urtean (1.600) baino askoz gehiago.

	2019	2020	2021
Jarduera turistikoa	%85	%50 ↓	%92 ↑
Bisitariak	9.000	1.600 ↓	7.800 ↑
Bisita gidatua	%94	%83 ↓	%91 ↑
Dastatzeak	%89	%83 ↓	%82 ↓
Tailerrak	%33	%17 ↓	%18 ↑
Kulturalak	%22	%17 ↓	%45 ↑
Dastatze-guneak	%57	%83 ↑	%91 ↑
Denda fisikoa	%43	%75 ↑	%73 ↓



DOSSIER COVID19


Pandemiak markatutako bizi-dinamika honen bigarren urtea izan da 2021ekoa, ezohiko urtea eta konplexua Euskadiko garagardogileen sektorearentzat, hobekuntza nabarmenekin, baina, aldi berean, bizitzeko eta lan egiteko moduari eragiten jarraitu duten murrizketa askorekin.

Zalantzarik gabe, zaila izan zen 2020. urtean jasandako kolpea gainditzea, eta garagardogile guztiak berrasmatu egin behar izan ziren bizirik irauteko, baina 2021ean susperraldi bat bizi izan dute (ekoizpena handitzea, esportazioak, online salmenta, etab.), ingurune konplexu eta kaltegarri batean. Datuak aztertuz eta azken txostenak alderatuz, aurtengo adierazle asko benetan itxaropentsuak direla antzeman dugu, Covid aurreko garaiko datuak berdindu eta gainditzera arte. Badira datu negatiboak islatzen dituzten zenbakiak ere, osasun-krisiaren ondorioz (enplegu-galera, garagardotegien itxiera, etab.), baina nabarmen murrizten ari dira.

Euskal garagardogileen sektoreak azken urteetako goranzko joera berreskuratu du, garagardogile guztien ahaleginaren ondorioz eta administrazioen laguntzari esker.

ARTISAU-GARAGARDOAREN EKOIZPEN OROKORRA %27 HAZI DA 2021EAN.

Ondoren, infografia bat, 2021ean krisiak izan zuen eraginari buruzko datu garrantzitsuenekin, eta sektorearen berreskurapenari berari buruzko datuekin:



“Euskadiko artisau-garagardoaren egoera 2021ean” izeneko txosten teknikoak euskal sektorearen egoera xehetasunez erakusten du, azken urteotako goranzko joerari jarraipena ematen dion indarberritze argi bat hautemanetz.

Azterketa hau Euskadiko garagardogile gehienen lankidetzari esker egin ahal izan da, eta benetako datu eta emaitzak lortu dira, besteak beste, ekoizpen-, banaketa- eta komunikazio-zehaztapenak xehetasunez aztertzeko.

EGEk (Euskal Garagardo Elkartea – Basque Beer) laugarren urtez jarraian sustatu du txosten hau burutzea, Euskadiko artisau-garagardoaren egoera bertatik bertara ezagutzeko xedearekin, azken lau azterlanen konparazioaren bidez. Azterketa orokor horrek aukera ematen digu sektorearen bilakaera etorkizun itxaropentsu batera bideratzeko.



www.basquebeer.eus

ege@basquebeer.eus

Beer Events SL enpresak egin du txosten tekniko hau, **Barcelona Beer Festival** jaialdiaren antolatzaileak.

